

SABOTAJE & MONTAJE

# TXOKO KUTTUNAK

TURISMO GIDA

LEA-ARTIBAI, MUTRIKU  
ETA BUSTURIALDEA

[2024/03]

LEA-ARTIBAI, MUTRIKU ETA BUSTURIALDEKO

HITZA

CONSERVAS  
**YURRITA**

1867

GASTRONOMIKA

BERTAKO ARRAIN KONTSERBA TRADIZIONALEN  
ZUZENKO ETA ONLINE SALMENTA



Zuzeneko salmentaren udaberriko ordutegia:  
Astelehenetik-ostiralera 09:00-14:30



Online salmenta:  
[www.yurritagastronomika.com](http://www.yurritagastronomika.com)



sarean edota dendan erosteagatik

**% 20ko deskontua**

kupoi hau aurkeztuz

**ZUZENKO SALMENTAN**

50€tik gorako erosketetan,  
urte amaiera arte erabilgarri

**ONLINE SALMENTAN**

50€tik gorako erosketetan  
ondorengo kupoia sartuz:  
**HITZALAGUN**

## Aurkibidea

YURRITA (Mutriku)	2
MUTRIKU	4
BERRIATUA	5
MARKINA-XEMEIN	6
ETXEBARRIA	7
ZIORTZA-BOLIBAR	8
AULESTI	9
MUNITIBAR	10
LEA IBARRA	11
ISPASTER	12
MENDEXA ABENTURA	13
LEKEITIO	14
LEAKTIBAI (Mendexa)	15
ONDARROA	16-17
NABARNIZ	18
EKOETXEA (Busturia)	19
ARRATZU	20
ARROLAGUNE (Arratzu)	21
KAMIÑOKO (Murueteta)	21
AUKA BIDAIAK (Gernika-Lumo)	22
ECUADOR BIDAIAK (Gernika-Lumo)	22
BAKEAREN MUSEOA (Gernika-Lumo)	23
GAUTEGIZ ARTEAGA	24
HEMINGWAY (Sukarrieta)	25
EKOBIDEAK (Leioa)	25
BASONDO (Kortezubi)	26
GAMETXO HOTELA (Ibarrangelu)	27
OGOÑOPE SURF (Laga-Ibarrangelu)	27
IZKIRA URDAIBAI FERRYA (Mundaka-Laida-Sukarrieta)	28
EUSKAL SOUVENIRS (Gernika-Lumo)	28
URDAIBAI Basque Reserve	29
BUSTURIA	30
AMUNATEGI (Busturia)	31
ITSASMENDI (Gernika-Lumo)	31
UR URDAIBAI-UR LEKEITIO	32



## Ezagutu eta sentitu gurea

**U**saindu, dastatu eta sentitu. Hamaika esperientzia eskaintzen dituzte Lea-Artibaik, Mutriku eta Busturialdeak. Lasaitasuna zein abentura. Aisialdirako planik ez da falta; natur zein kultur ondare aberatsa aurkituko du bisitariak.

Kostaldean zein barrualdean, bertoko historian sakondu, paisaia liluragarrietan barrena murgildu, eta gastronomia eskaintza paregabea dastatu zenezake. Mendi-magalek besarkatuta, olatu aparretan sentitzeko txokoz beteta daude. Askotariko kirol jarduerak zein atsendaldi lasaiak nahi izanez gero, planik ez zaizu faltako. Egonaldi ahaztezinak ziurtatuta daude, eta behin hurbildu eta probatuz gero, errepikatuko duzu. Besoak zabalik hartuko zaituzte Lea-Artibaik, Mutriku eta Busturialdeak.

**TXOKO  
KUTTUNAK**  
TURISMO GIDA  
[2024/03]

**Bizkaia**  
Foru Aldundia  
diputación foral

Argitalpen honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du.

Argitaratzailea: **Lea-Artibaialdeko Hedabideak**

Lege gordailua: **BI-2906-03** · ISSN: **2173-7118**

Helbidea: **Arretxinaga Etorb., 1 · MARKINA-XEMEIN · 94-684 44 36**

Webgunek: **www.busturialdea.hitza.eus**

**www.lea-artibaiaetamutriku.hitza.eus**

Testuak eta publizitatea: **Lea-Artibai, Mutriku eta Busturialdeko HITZA**


**bai**  
euskara



**HITZA**

# Mutriku

## Molla Berri



Garala Pagola Urriza



**Eneritz  
Lizardi Azpiazu**  
(Pilotaria)

**«Mollara heldu eta ikusten dena zirrara eragitekoa da»**

**E**rraza da Eneritz Lizardi Azpiazurentzat Mutriku bazer kuttun bat aukeratzea. Abestiak Gipuzkoako txoko txiki bat modura izendatzeko duen herrian badago beste guztien gainetik nabarmentzen den leku bat pilotariaren usuez. Toki hori Molla Berri da.

Umetako oroitzapenak gogora ekartzen dizkio Lizardiri Molla Berrik, familiarekin egiten zituen egun pasa gozoak. Gurasoek bertara eramaten zuten udako egun luzeetan, jendetzarengandik ihesi, igerilekuan eta hondartzan baino pertsona gutxiago elkartzen zirelako, eta lehengusu-lehengusine-

kin jolasten emandako denboraren gogorapen ederra betiko gorde du.

### Estresarentzako ihesbide


Herrigunetik hurbil dauka bihotzeko toki, etxetik hamar minutura. Arrazoi horregatik, askotan josten du bertara. «Aldendu barik, arazoengandik urruntzeko era ematen dizu. Sarri joaten naiz hara lasaitasun bila, liburu bat eskuan dudala», adierazi du. Dela pilota denboraldian, dela ikasketa garaian, sosegua eragiten dio, bai handik herria ikus-teak babes sentsazioa ematen diolako, bai, itsasoa pare-parean edukita, behin baino gehiagotan izan duelako estresarentzako ihesbide, eta ziur dago berari modura kanpotik datozenei ere efektu bera eragiten diela. «Bisitariak kale estu eta aldapatsuetan behera jaisten direnean, mollara heltzen dira, eta ikusten dutena zirrara eragitekoa da, herria osotasunean ageri delako bertatik, plano orokor batean, eta, gainera, itsasoa begi bistan».



**GEOPARKEA**

**TURISMO BULEGOA:**  
Txurruka Plaza, z/g • 943-60 33 78  
turismo@mutriku.net  
[www.mutriku.eus](http://www.mutriku.eus)

# Berriatua



Lore Bengoetxea Ibazeta

**H**aurtzaroko oroitzapen ederrekin lotzen du Jagoba Arrasate Osasunako futbol entrenatzaileak Berriatuko herriko plaza. Horixe da beretzat herriko tokirik kuttunena. «Plazan ordu piloa pasatzen genuen umetan eta gaztetan. Denetarik egiten genuen bertan: futbolearen eta palan aritzen ginen, edo platano zuhaitzaren azpiko proba harrietan jarri eta kontu kontarri ibiltzen ginen. Hantxe ematen genuen eguna».

Sakelekorik gabeko garaia zen; haren premiari nabaritu ere ez. «Bakoitza bere etxetik jaisten zen plazara, eta han batzen ginen, elkarri telefonoz deitu beharrik gabe. Beharbada norbere lagunik ez zegoen, baina jakiten genuen jendea topatuko genuela, batzuk zaharragoak, beste batzuk gazteagoak, eta hor zoriontsu izango zinela», aipatu du Osasunakoak. Finean, haren ustez, neurria gakoa da. «Herri txikia izatean, beti eduki izan du aberastasun hori, alegia, belaunaldi desberdinetako jendea bertan elkartzea eta denek denekin konektatzea».

## Jokoa ematen duen lekua

Herrira bueltatzen denean, oraindik ere bilatzen dio xarma herriko plazari. «Nahiz eta denborak aldatu diren, eta gaur egun beste elkarleku batzuk egon, era batera edo bestera, bertatik pasatzen jarraitzen dugu. Frontoia eta probalekua bertan dau-



**Jagoba**  
**Arrasate Elustondo**  
[Futbol  
entrenatzailea]

**«Bagenekien plazan  
jendea topatuko  
genuela eta zoriontsu  
izango ginela»**

de, eta horrek joko asko ematen du. Gainera, instalakuntzak hobetu egin dira, eta kontzertuak emateko espazio bat atondu». Eta dio oraindik herriaren bilgune izaten jarraitzen duela, «adibidez, bizikleta eta mendi martxetan».



**BERRIATUA**  
**ELIZATEKO**  
**UDALA**

Herriko plaza, 1  
94-613 70 30  
Faxa: 94-613 70 27  
udala@berriatua.org  
[www.berriatua.org](http://www.berriatua.org)



## Txepetxabixe



Aintzane Gandiaga Gandiaga



**Aintzane  
Gandiaga  
Gandiaga**  
[Kultur  
dinamizatzailea]

**«Eskualdeko balkoi  
baten modukoa da:  
kontenplazio leku bat»**

Lasaitasuna, natura, historia, artea eta oroitzapen politikak. Horretxek denak batzen ditu, bai Txepetxabixe, bai bertarainoko bideak eta inguruak, Aintzane Gandiaga Gandiaga kultur dinamizatzailearen iritziz.

Arluzebide, Txepetxabixe modura ere ezaguna, Santa Eufemi ostean dago, hau da, Bedartzandi atzean. «Bista oso politak daude bertatik. Inguruko mendi piloak ikusten dira, kostalde gutzia eta itsasoa. Eskualdeko balkoi baten modukoa da: kontenplazio leku bat». Hala dio Gandiagak. Harrobia izandakoa, marmola ateratzen zen bertatik, eta us-

tiatzeari utzi zitzaionean, Mikel Lertxundi Berriatuko eskultoreak interbentzio artistikoa egin zuen berak erabili ohi dituen elementuekin, alegia, harria, egurra eta burdinarekin.

### **Pinuaren ordez, bertoko zuhaitzak**

Lekua bera ez ezik, bertarako bidea ere oso polita da Gandiagaren esanetan. «Herri basotik zoaz, eta pinua utzi eta bertoko zuhaitzak bistaratzen dira, hain zuzen, artadi kantauriarra eta pagadia. Lasaitasuna ematen du, eta jende gutxi ibiltzen denez, bakea ez da eteten», nabarmendu du.

Umearoarekin ere lotzen du ingurua. Izan ere, haurra zelarik, herriko aisialdi taldearekin eta Alpinomendi taldearekin irteerak egin ohi zituzten inguru horretara, hots, Txepetxabixera zein herribasora, Gabarora, Gabaroko simara, kobara eta Aristiederrera. «Etxetik gertu-gertu egon arren, leku horiek ez nituen ezagutzen, eta ordutik neure babesleku edo leku kuttunen zerrendan dauzkat».



**MARKINA-  
XEMEINGO  
UDALA**



Goikoportala, 3 · 94-616 74 54

WhatsApp: 688 84 49 95

udala@markina-xemein.eus

www.markina-xemein.eus

www.markinaxemeinturismoa.eus

# Etxebarria



Antsotegi Hotela

Antsotegi Hotela

**A**ntsotegiko burdinolaz maitemindurik eta balioan jarrita, orain dela hogeit hamar urte Emilio Hernando eta Kata Etxebarriak hotela ireki zuten. Semeak ametsen batuta, proiektuaren bilakaeraren protagonista izan dira.

Antsotegiren xarma zaindu eta burdinolaren historia bezeroei transmititzearekin bat, inguruon aberastasun naturalean jarri dute arreta urte haue-tan. Izan ere, Hernando-Etxebarria sendiaren bizi-penak beti egon izan dira mendiarekin lotuta, eta gurasoengandik jasotako pasio hori ogibide bihurtu dute semeek hotelaren baitan. Era horretara, egun, ostatu eta jatetxe zerbitzuaz gain —0 kilometro filo-sofiarekin bat eginda, eta gustu oro eta euskal gas-tronomia ardatz hartuta, eguneko menua eta karta opatzen dituzte egunero—, eskaintza zabala dute —Bizkaian hotel bakarra da turismo aktiboko en-presa daukana: Leaktibai — esaterako, espeleolo-gia, puenting, eskalada, uretako jarduerak eta uda-lekuak. Laster bizikleta elektrikoa alokatzeko era ere egongo da. Horrenbestez, eskualde osoa ezagu-zeko aukera daukate Antsotegiko bezeroek.

## Egindako lanaren fruitu

Urtemuga borobilean, Gontzal Hernando aurrera begira jarri da, orain arteko ibilbideari begirik kendu gabe. «Nortzuk garen beti gogoan hartuta, oso



**Gontzal  
Hernando  
Etxebarria**  
(Antsotegi Hotela)

«Ez gara tontorrera heldu, eta ostean jaitsi egin behar gara, baina bidea topatu dugu»

harro gaude proiektuarekin; momentu oso onean gaude, eta ondo kokatuta; hori bai: lanaren fruitu da. Oraindik ez dugu beharra amaitu, ez gara tontorrera heldu, eta ostean jaitsi egin behar da, ze mendia etxean amaitzen da; baina bidea topatu dugu».



**ETXEBARRIKO  
UDALA**

Peñanekua plaza, 1  
94-616 64 32  
[www.etxebarria.biz](http://www.etxebarria.biz)

# Ziortza-Bolibar

## Arta auzoko San Pedro basiliza



Leire Agirre Sexmilo



**Leire  
Agirre Sexmilo**  
[Irakaslea]

**«Pinu asko kendu dira,  
eta zelai asko egin; horri  
esker, nire toki kuttuna  
oraindik kuttunago da»**

**A**rta auzoko San Pedro basilizak eta hango ikuspegiak bakea ematen du Leire Agirre Sexmiloren esanetan, eta etxetik gertu egonik, haraxe joan ohi da lasaitasun bila. Huraxe du toki kuttun.

Agirre donostiarra da, eta bere bikotea ere ez da ziortza-bolibartarra. Biak artzain eskolan ibilita, baserri bila hasi ziren, eta Ziortza-Bolibarko Arta auzune ederrean aurkitu zuten begikoa. Bertan sustraiak bota eta familia osatu dute. Eta hala, hamairu urte igaro dira Lea-Artibaiko herria bizileku aukeratu zutenetik.

Onartzen du etorri berri zirelarik inguruetan horrenbeste pinu ikusteak atzerakada eragin ziola, baina dio ordutik hona ingurua asko aldatu dela. «Pinu asko kendu dira, eta zelai asko egin. Horri esker, nire toki kuttuna oraindik kuttunago bihurtu da», adierazi du Agirrek.

### **XV. mendeko basiliza**

Gaur egun, Artako San Pedro basiliza buelta pinurik gabe dago, haritzek eta pagoz josita, eta ikuspegi ederrez gozatzeko aukera ematen du. «Oso lasaia da, inor ez da egoten eta sekulako bistak daude». Pandemia garaian oso lagungarri egin zitzaion parajea. «Irtenbide ederra izan zen guretzat garai haietan, eta etxetik erraz heltzen da bertara», dio.

San Pedro basiliza Arta auzoko muino txiki batean dago. XV. mendekoa da, eta Eusko Jaurlaritzak ondare izendatua du. Ekainaren 29an erromeria egiten da. Auzoa bera XI. mendetik gurtza lekua izan da.



**ZIORTZA-  
BOLIBARKO  
UDALA**

Domingo Ugartetxea, 3  
94-616 57 27  
udala@ziortza-bolibar.com  
www.ziortza-bolibar.eus  
[www.simonbolivarmuseoa.com](http://www.simonbolivarmuseoa.com)



# Aulesti



Muxoko aldaparako erreka bidea

June Prieto Diego

**J**une Prieto Diegok sei urte daramatza Aulestin bizitzen. Dio hasieran leku batzuk deskubritu zituela, eta denbora pasatu ahala beste batzuk begiztatzten joan zaizkiola, argazkian ateratzeko modukoak asko, berak horrelakoetan argazki makina etxean uzten badu ere.

Barakaldotik etorri berri, Madalenako ermita ezagutu zuen lehenbizi, Urriolara bidean; baita bidetarra ere. «Urteak igaro ahala, ibiltzen eta urrunago heltzen joan naiz, eta Aulestitik irten gabe noraino hel zaitezkeen ikusteak oraindik ere harritzen nau», adierazi du.

Heria ezagutuaz aurkitu du, adibidez, Urriolako auzotik Muxoko aldapara bidean dagoen erreka bidea —hortik joaten da Motrollora, Munitibarrera eta hainbat lekutara—. Horixe da Prietoren leku kuttuna. Leku horrek sorrarazten dion sentsazioa deskribatu du: «Hainbat zuhaitz mota daude bide-tik gertu, eta basoan modura zaude. Gainera, paisaia aldakorra da, urtaroaren arabera, eta horrek are erakargarriago egiten du».

## Argazkizaleentzat aproposa

Argazkilaria izanik, mezua bidali die kideei, alegia, Aulestin nondik nora ibili daitezkeen. «Aulesti oso fotogenikoa da: Santa Eufemiko ermitan argazki eder-ederrak atera ahal dira, goizetan behelaino-



**June Prieto Diego**  
(AEKko irakaslea eta argazkilaria)

**«Basoan modura zaude; gainera, paisaia aldakorra da, urtaroaren arabera»**

pean ere eder ageri da, eta edozein puntu altutik, ikusgarri eta polit». Bere toki kuttuna ere erakargarri izan daiteke argazkilarientzat, ur jausiak daudela. «Ni neu, ostera, argazkiak ateratzera baino, naturaz gozatzera joaten naiz leku horretara».



**AULESTIKO UDALA**

Donibane enparantza, 1  
94-627 90 06  
idazkaria@aulesti.eus  
[www.aulesti.eus](http://www.aulesti.eus)

## Gerrikaitzeko Santa Luziako ermita



Ainhoa Lauzirika Aranburu



**Ainhoa  
Lauzirika Aranburu**  
(Liburuzaina)

## «Gerrikak nabarmentzeko moduko ermita dauka: Santa Luzia»

**B**eti egin zaio erakargarri Ainhoa Lauzirika Bajangiztarrari Munitibarko Gerrika auzoa, batetik, hangoa zuelako amona, izatez, eta bestetik, haren edertasunarengatik. Munitibarrera doazenei hura bisitatzea gomendatzen die liburuzainak, batez ere Santa Luzia ermita, eta haren inguruko kondairak entzutea.

«Gerrika alturan dago, oso polita da, eta nabarmentzeko moduko ermita bat dauka: Santa Luzia. Bizkaiko zaharrenetakoa —X. mendearen aurrekoa da—, hasieran eliza izan zen, eta berarekin lotuta kondaira batzuk daude», azaldu du.

Hain zuzen, haietako bat 1920. urtean Jose Migel Barandiaran antropologo ataundarrak bildu zuen. «Kondairan jaso zen kristauen eta jentilen artean liskarrak egon zirela, biek nahi izan zutelako elizaz jabetu».

### Ziortzaren sorrerarekin lotuta

Beste kondaira batek dio Bizkaiko jauntxoak Santa Luzian meza entzuten ari zirela, arrano batek hileritik buruhezur bat hartu eta gaur egun Ziortzako monasterioa dagoen lekuan erortzen utzi zuela.

«Esaten da baseritarrek euren soberakinak al-darearen alboko siloan ezkutatzen zituztela, jauntxoaren presioari ihes egiteko. Horrek esan nahi du eliza auzokoen jabetzakoa zela», azpimarratu du. Lauzirikaren ustez, beste gauza bat ere badu go-goan izateko modukoa: kanpaia egiteko laba bertan barruan dago. «Pentsatu behar dugu X. mendean kanpaiak markatuko zuela noiz lan egin, noiz atsedean hartu eta noiz otoitz egin».



Herriko plaza, 6  
94-616 40 07  
idazkaritza@munitibar.org  
[www.munitibar.org](http://www.munitibar.org)

# lea



ingenio & natura

## ibilbidea

GR 38 ARDO eta  
ARRAINAREN IBILBIDEA

[www.leaibarra.eus](http://www.leaibarra.eus)



Elخالde, 1 - 48289 GIZABURUAGA | tf. 94-684 29 82 | [leaibarra@bizkaia.org](mailto:leaibarra@bizkaia.org)  
Administrazioa: 94-684 29 82 • Ongizatea: 94-684 29 63 • Garapena: 94-684 44 23



MUNITIBAR  
ARBATZEGI  
GERRIKAITZ  
UDALA



AULESTIKO  
UDALA



GIZABURUAGAKO  
UDALA



AMOROTOKO  
UDALA



MENDEXAKO  
UDALA

# Ispaster

## Ogellako hondartza



Erlantz Garai Olaeta



**Erlantz  
Garai Olaeta**  
[Irakaslea]

**«Ogella nire bizitzako etapa guztietan egon da, eta uste dut horrela izaten jarraituko duela»**

**Z**alantza izpirik ez dauka Erlantz Garai Olaetak: Ogellako hondartza da Ispasterko lekurik politena, baita inguruetakoa ere. Bere ihesbidea dela dio, eta argazkiak ateratzeko leku aproposa.

Umetatik eduki du Ogellara joateko ohitura. «Leku basatiagoa zen orduan, eta baso bidetik joaten ginen, arrainetan ibiltzera», gogoratu du. Gerrogo, irisgarri egin zuten, eta mahaiak jarri moka-dua jan eta solasaldietarako. Hain zuzen, gaztetan askotan joaten ziren lagunak bertara egunpasa, bazkari eta guzti, mahaiak zeudela aprobetxatuta.

Egunsenti ederrak ikus daitezke hondartzan. «Lehen, parrandatik bueltan joaten ginen ikuskizunaz gozatzeri; eta gaur egun, ohetik goiz-goiz jai-kita, argazkiak ateratzeko». Izan ere, argazkizalea da Garai, eta dio momentu horretan ez duela parekorik. Gainera, Ogella sekula ez omen da berdina. «Batzuetan, urak hondarra ekartzen du, besteetan eraman; bat-batean haitzak berde ipintzen dira, hurrengoan ez; eta eguzkia ere ez da beti ez leku beretik irteten, ez sartzen», adierazi du ispasterarrak.

### Erlojuari begiratu gabe

Astean birritan joaten da menditik korrika egin ostean, besterik gabe bertan egon eta lasaitzera; beste batzuetan argazki makina eta guzti, erlojuari begiratu gabe; eta seme-alabekin udaro, kanaleko hondartza barean jolastera edo putzuetan arrainak harrrapatzeri. «Ogella neure bizitzako etapa guztietan egon da, eta nik uste dut horrela izaten jarraituko duela», dio.



### ISPASTERKO UDALA

Elexalde auzoa, 9-1. solairua  
**94-684 40 25 / 94-684 29 99**  
Faxa: 94-624 34 70  
udala@ispaster.eus  
**www.ispaster.eus**



**mendexa**  
ABENTURA PARK

**ABENTURA PARKEA ETA TIROLINAK**  
Guztion neurriko zirkuituak

**6 ZIRKUITU, 23 TIROLINA,  
78 ERRONKA ZUHAITZ ARTEAN!**



**[www.mendexapark.com](http://www.mendexapark.com)**

**Tel. 688856283**



**[info@mendexapark.com](mailto:info@mendexapark.com)**



MEDEXAKO UDALA

# Lekeitio

## Lekeitiar Lagunkoien Lorategia



Lore Bengoetxea Ibazeta



**Marisol  
Oliban Garcia**  
[Lorezalea]

**«Ondo egiten dit Santa Katalina itsasargiak; bai lekuak, bai lorategiak»**

Lorezaletasunak bultzatuta eta hango tabernariaren proposamenari kasu eginez hasi zen lorategia atontzen Marisol Oliban Garcia, Lekeitioko Santa Katalina itsasargian. Lekuarekin maiteminduta, oraindik eta toki kuttunagoa bihurtu da harrezkero.

Lekeitiar Lagunkoien Lorategia izendatu zuten iaz, eta plaka baten bidez identifikatu. Margarita, begonia, azeri-buztan eta beste hainbat motatako loreek ematen diote kolorea txokoari. «Batzuen izenik ez dakigu. Horiei *lekitxarra* deitzen diegu, eta kitto!», esan du Olibanek.

Lehendik ere gustatzen zitzaion Santa Katalina Olibani, ez dago alferrik leku pribilegiatu batean, itsaso zabala aurrean duela. «Hona etorri, itsasoa ikusi eta erlaxatzea, dena da bat. Ondo egiten dit bai lekuak berak, bai lorategiak. Jendeak esaten dit lan handia hartzen dudala, baina aitzurrari eraginda, baketan egoten naiz, eta haserre guztiak joaten zaizkit», azaldu du.

### Plazer partekatua

Ez da, dirudienez, lekuaren efektu positiboa jasotzen duen bakarra, lanerako talde bat batu zaio eta. Batek baino gehiagok aitortu die orain atsegin ematen diela itsasargira joateak. Alegia, loreak zainduta, loreak jasotzen dituzte bueltan. Eta horrek alaitu egiten ditu.

Ia egunero batzen dira Lekeitiar Lagunkoien Lorategian Oliban eta lagunak, eta poza sentitzen dute hura zaindu, noizean behin kimu berriak sartu eta baratzea edertzen ikusita.

 **lekeitioturismo.eus**

**TURISMO BULEGOA**  
Santa Elena Etorbidea, 2 • 94-684 40 17  
turismo@lekeitio.eus

TURISMO AKTIBO  
JASANGARRIA

MENDEXA

Karraspio



LEAKTIBAI

LEA ARTIBAI ABENTURA

MENDEXAKO UDALA



WWW.LEAKTIBAI.EUS

leaktibai@gmail.com

688 826 797



PUENTING



ARROILEN  
JAITSIERA



TIROLINAK



ESKALADA



ESPELEOLOGIA



SURF



BIG SUP



MENDI-IBILIAK



GYMKANA



TAILERRAK



COASTERING



STAND UP  
PADDLE

Kamiñazpiko muralak



**Ion Iñaki Artetxe Egaña**  
[Kultura zinegotzia]

«Artistek herria ezagutzen dute lehenengo, eta ostean, zer islatu aukeratu»

Ondarroako Kamiñazpi auzoa aire libreko museo bilakatzen ari da, auzoaren beraren zein herriaren erakusleihen. Horma beteko hiru mural egin dira etxe-aurre banatan, eta nazioarte mailako aintzatespenari esker, interes turistikokoak bilakatu dira.

2022an Murales Lianen proposamenari erantzunez jarri zuen udalak martxan aire libreko museoaren proiektua. Artistak *Saregileak* lana egin zuen Kamiñazpi 33.eko fatxadan, eta urte hartako munduko hirugarren muralik onena izendatu zuen *Street Art Cities* atariak. Hurrengo urtean, beste bi artis-


ta aukeratu zituzten. Horretarako, baldintza bakarra jarri zuen udalak: gutxienez bietako bat emakumea izan behar zela. Abiapuntu horretatik, beste bi egile aukeratu zituzten: Djoels flandiarrak *Gabriel* egin zuen; eta Matias Mata edo Sabotajealmentaje kanariarrak *Memoriaren erraiak*. Djoelsen lana mundu guztiko zortzi onenen barruan geratu zen, eta Sabotajealmentajeren beharrak eragin sozialaren sari nagusia lortu zuen.

**Egonaldi artistikoa**

Ion Iñaki Artetxe Ondarroako Udaleko kulturburuak ekimen horrekin lortu nahi dena azaldu du: «Artea kalean ipinita, auzoari zerbait eskaini eta herritarren bizitza atseginagoa izatea bilatzen dugu». Sormen prozesua ez da ohikoa izaten. Izan ere, 15 eguneko egonaldi artistikoen bidez sortzen dira lanak. «Artistek herria ezagutzen dute lehenengo; eta bertan jasotzen dutenarekin eta askatasun gutziarekin aukeratzeko dute zer islatu paretetan».

Udala pozik dago emaitzekin. «Nabarmen txikia da hirurak daudela itsasoarekin lotuta: itsasoaren eta lehorraren arteko harremana adierazten dute, eta hiruretatik bik azaltzen dute emakumeen izatea edo parte-hartzea Ondarroan». Bizitza luzea aurreikusten dio proiektuari: «Auzoak erantzuten badu, jarraituko dugu».

Kamiñazpiko muralak



**Esti Arriaga Garetxana**  
[Turismo bulegoko teknikaria]

«Jende asko doa Kamiñazpira, muralak turismo kulturalaren kontsumogai direlako»

Kamiñazpi arrantzale auzoaren sorrerako urteetan, bizilagunen ekimenak egin zuen posible azpiegitura eta zerbitzuez hornitzea; eta, gaur egun muralen erakusleihen bihurturik, ikusleak erakartzen hasi da.

Auzoko etxebizitza bloke bakoitzak bi horma dauzka, aproposak muralak margotzeko. Haietako hiruretan daude muralok, elkarrengandik hurbil, hots, 31, 33 eta 35. zenbakietan; herrian sartuaz batera. «Sarien oihartzunarekin jende ugari joaten da bertaraino, turismo kulturalaren kontsumogai bilakatu direlako», esan du Esti Arriaga Garetxana Ondarroako turismo bulegoko teknikariak.

**Ondarroa, muralen agertoki**

Lian muralgilearen lana izan zen Kamiñazpiko aire libreko museoaren lehen lana. Aurretik, egileak beste hiru lan ere eginak ditu herrian, hots, Zaldupeko zubi azpian, portuan eta Musika Plazan, eta hainbat egileren beharrak ere badaude ikusgai han-hemenka, besteak beste, Berdura Plazaren sarreran eta atzean, Kanttoipen —Bitxore Laka artistaren omenez—, Zaldupeko zubi azpian —Txirrimorraskirena—, Gaztetxean eta Antiguako Ama Elkartean.

Kamiñazpi ibilbide bukaerarako uztea gomendatzen du, auzoa herriaren mutur batean dagoelako. «Dena dela, oinez egiteko gogoz etorri badira,

Errege bidea eginez —Saturraran hondartzatik Berriatuara— Alleriko padurara heldu eta aukera egongo litzateke edo muralak ikustera joateko edo Berriatuara jarraitzeko», adierazi du Arriagak.



**ONDARROAKO UDALA**



**TURISMO BULEGOA** - 94-683 19 51  
Erribera, 9 (Kofradia Zaharra)  
turismobulegoa@ondarroa.eus  
• [www.ondarroa.eus](http://www.ondarroa.eus)  
• [www.udalbarriak.eus](http://www.udalbarriak.eus)



# Nabarniz

Airo



Nabarnizko Udala



**Oihana  
Goiriena Foruria**  
[Administraria]

**«Airora joatean,  
bista, entzumena  
eta usaimena  
akbitatzen dira»**

**G**alarregi eta Ilunzar mendien artean, Airoko pagadi ederra dago, eta haren parean, Airo baserria zena. «Ni izatez gernikarra naizen arren, familia Nabarnizkoa daukat, eta umetan lehengusu-lehengusinekin Airora joaten ginen asteburuetan. Baserrian sartu ahal ginen, ordurako bertan behera utzita zegoen eta. Hark gordeta zuena ikustea gustatzen zitzaigun. Dela sukaldea, dela beheko sua, barrua ikusgarria zen guretzat», adierazi du.

Gaur egun bizitoki du aitona-amonen baserria, eta inguru guztia du maite: udaberrian arbolak lo-

ran ikustea; udazkenean masustak batzea, eta neguan elurretan ibiltzea. Hori bai: Airo baserria kanpotik baino ezin dute ikusi. «Ezin da bertaraino heldu, sasiz josita dagoelako eta teilatua jausita, baina alboko bidetik ikusi daiteke», azaldu du.

## Zentzumenak adi

Uruburu atzeko bidea hartuta Kurtziaganera igo — Ikazurietako antzinako bide kaltzadatik, PR-BI 174 bidearen parte —, eta Airora heltzen da. «Neguan, euri asko egiten duenean, erreka etortzen da Kurtziaganatik bide kaltzadan behera, Uruburu ondolik Itzako errekatxora. Katiuskak jantzita hortik paseatzea esperientzia oso polita izaten da bideak erreka dakarrenean», ohartarazi du. Hortaz, bete-beteko bizipena izan dadin, zentzumenak adi jaretzea gomendatu du. «Bertara joatean, bista, entzumena eta usaimena aktibatzen dira. Urte sasoiaren arabera, usain batzuk usaintzen dira, eta kolore batzuk ageri; eta beste batean, beste batzuk».



**NABARNIZKO  
UDALA**

Elexalde auzoa, 2  
**94-625 50 77**  
Faxa: 94-625 65 12  
udala@nabarniz.eus  
**www.nabarniz.eus**



# Ekoetxea

## Euskadiko Ingurumen Zentroyen Sarea

Zatoz **Ekoetxea Urdaibai** zentrorra eta modu jasangarriagoan bizitzen lagunduko dizuten **esperientziekin** goza ezazu!



Kontsultatu  
gure agenda  
hemen



Madariaga Dorretxea  
San Bartolome, 35  
48350 Busturia (Bizkaia)

Tlf: 94 687 04 02  
[www.ekoetxea.eus](http://www.ekoetxea.eus)  
[info.urdaibai@ekoetxea.eus](mailto:info.urdaibai@ekoetxea.eus)

# Arratzu

## Biosferaren erdian



Ane Maruri Aransolo



**Salvador  
Erleaga Abaitua**  
[Piratak Herri kirolak  
elkartekoa]

**«Dena da ikusgarri  
hemen: osotasunean  
dut kuttun herria»**

**A**rratzu aukerez gainezka ageri zaio bisitariari. Hala dio Salvador Erleaga Abaitua mendatar arratzuartuak. «Dena da ikusgarri hemen: osotasunean dut kuttun herria», dio, miwesmenez.

Pirata Herri kirol elkarteko kideari kolpera datzio herriko leku maiteak. Bere esanetan, Artzubi zubi erromatarra, frontoia eta parkea dira puntu erakargarri batzuk, baina ez bakarrak. Dio Arratzu ezagutzeaz bat, bisitariak naturaren babesean ariketa egiteaz gozatu ahalko dutela, adibidez, bidegorri eta mendi ibilbideak lagun.

Herri kirolaren altxorra gorde du Arratzuk: hain zuzen ere, Salvador Erleagaren etxe aurrea. Huraxe ere bada Erleagarentzat txoko berezi; beretzat ezetik, baita hainbatentzat ere, hantxe egiten baitituzte herri kirol ikuskizunak zein haietarako entrenamenduak. Badira hamabost urte ezerezetik herri kirol elkarte bat sortu zutena, eta herririk herriko erakustaldietarako prestakuntzak mendatarren etxe inguruan egin ohi dituzte.

## Biosferaren erdian

Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren bihotzean dago Arratzu, eta ederto uztartzen ditu landa izaera, paisaia naturala eta ondare historiko eta kulturala. Arrazoi horregatik, plan biribila egin ahal du Busturialdeko herri horretara doanak, Erleagaren ustez. Paisaia natural horren baitan hainbat puntu ikusgarri daude, esaterako, Arrolako mugarría, non arratzuarrek, mendatarrek eta nabarniztarrek bat egiten duten.



## ARRATZUKO UDALA

Loiola auzoa, 2  
94-625 68 84  
udala.arratzu@bizkaia.org  
[www.arratzu.eus](http://www.arratzu.eus)  
[www.turismoarratzu.eus](http://www.turismoarratzu.eus)

# ARROLAKO OPPIDUM-AREN INTERPRETAZIO ZENTROA

ARROLAKO  
OPPIDUM-AREN  
INTERPRETAZIO  
ZENTROA



IGANDE GUZTIETAN ZABALIK  
10:00-14:00 ARRATZU  
Sarrera doan

MARTXOAK  
31  
igandea

MAIATZAK  
19  
igandea



BISITA GIDATU BEREZIA OINEZ  
ARROLAKO OPPIDUM-ERA

9:00h ARRATZU  
PREZIOA: 15€

AURRETIZKO ERRESERBA  
634 243 762



# Kamiñoka

erretegia • jatetxea

Gernika-Bermeo errepidea  
94-625 51 46 MURUETA  
kaminokomotxo.com



Urdaibai bihotzean kokatuta dago Kamiñoko jatetxea. 2012an Motxok eta bere talde profesionalak ireki zituzten berriro jatetxeko atea. Haragietan, arrainetan eta euskal sukaldaritzan tradizionalen espezializatuta gaude. Lau jangela zabal ditugu 700 lagunentzako lekuarekin.

CIE: 2260

# auka bidaiak

Fray Martín de Murua, 29  
GERNIKA-LUMO  
94-625 74 14 · 688 68 63 45  
auka@auka.eu



[www.gernika.viajesecuador.com](http://www.gernika.viajesecuador.com)

VIAJES  
**ECUADOR**  
BIDAIAK

**Viajes ECUADOR Bidaiak**  
8 de Enero, 7 · Gernika-Lumo  
94-625 42 39 · 626 25 91 26  
gernika.ve@viajesecuador.net



# Zatoz Gernikako Bakearen Museora!

Bakeaz, Giza Eskubideetaz eta Gernikako bonbardaketaz arituko gara. Bizirik irten zirenek beraien bizipenak kontatuko dizkigute. Gaur egungo egoera ulertzeko ezinbestekoa.



**MARTXOTIK  
URRIRA**

Astelehenak  
eta igandeak:  
10:00-14:30

Asteartetik  
larunbatera:  
10:00-19:00


Larunbat  
arratsalde  
guztietan,  
sarrera doan.

A graphic for the 'GURS' exhibition. It features a large black silhouette of a house with a gabled roof, set against a white background. The silhouette is framed by horizontal lines of barbed wire. In the center of the house silhouette, the text '2024 / 02 / 15 - 2024 / 05 / 12' and 'GURS' are displayed in white. Above the silhouette, there are several logos of participating organizations: Antziazaldea / Gernikako Bakearen Museoa Fundazioa, Komitatuak / Josu Chueca Intxusta, Lapurtzaleak / ARTXIBC, and logos for Gernika-Lumo, Gernika, and Gernika-Lumo. The overall design is stark and evocative.

2024 / 02 / 15 - 2024 / 05 / 12

# GURS

**“GERNIKA BERRI” REN AMETS ZAPUZTUA**



Gernikako Bakearen Museoa Fundazioa  
Fundación Museo De La Paz De Gernika

Foru plaza,1. Gernika-Lumo  
94 627 02 13 / museoa@gernika-lumo.net

[www.museodelapaz.org](http://www.museodelapaz.org)

# Gauegiz Arteaga

## Parkea



Alex Uriarte Atxikallende



**Jose Angel  
Aberasturi  
Olabariaga**  
[Udaletxeko  
langilea]

**«Edozein gustura  
egoteko moduko  
txokoak daude  
parkean»**

**B**izitzaren agertoki da Gauegiz Arteagako parkea; herriaren bilgune eta naturarekin eta besteekin elkartu nahi dutenen erakarri. Jose Angel Aberasturi Olabariaga arteagarraren ustez, dena biltzen du bi hektareatan, eta dudarik ez dauka horixe duela berak toki kuttun.

«Edozein gustura egoteko moduko txokoak daude parkean, han-hemenka, inguru lasaian eta trafikotik urruti», dio. Aktibitate fisikoa gustuko dutenek, adibidez, zaletasun hori asetzeko aukera batekin baino gehiagorekin egingo dute topo. Hain

zuzen ere, helburu horrekin jarrita daude skate parkea, tirolina eta gimnasia aparailuak. Horrez gain, oinez inguruaz erabat gozatzeko era ematen dute gaztelu alboko pasealekuak —300 metro ingurukoa— zein Gernikarainoko joan-etorriko zirkuituak —bost kilometrokoa—.

### Liburuen etxola

Zuhaitzek ere arreta ematen diote. 150 bat arbola daude, haritz, arte eta gereziendoak batuta, eta askok probesten dute haien gerizpea liburu bat irakurtzen duten bitartean, nork berea edo parkean bertan hartutakoa. Izan ere, etxola bat propio jarri dago jendeak liburuez goza dezan.

Aberasturik dio mimoz zaintzen dutela. «Bedarra moztuta eta behar modura hornituta egoten da; umeentzako jolas berriak ere berritzen dira sarri». Eta kanpokoentzat ere bada atsegingarri. Udaberritik aurrera, asteburuetan ezezik, aste barruan ere lagun ugari hartzen ditu, umeak gehienbat.

### GAUTEGIZ ARTEAGAKO UDALA



Herriko Enparantza, 1  
94-625 29 53  
udala@gautegizarteaga.eus  
www.turismogauegizarteaga.eus

HEMINGWAY KANALA HOUSE

# ZURE ZAIN GAIUZU



inspiratu  
zaitez



## EDERTASUNA ETA OSASUNA

Spa, sauna eta  
masaje terapia

## LORATEGIA

Lorategi zoragarria  
itsasora begira

## NATURA

Naturazaleentzat  
ihesaldia egiteko  
toki paregabea



Mundakako  
itsasadarraren  
bihotzean



HEMINGWAY Kanala House

Kanala Auzoa 19 · SUKARRIETA  
(sarbidea, Gauteziz-Arteagatik)  
<https://casarural-kanala.com/>  
casaruralkanala@gmail.com  
666 68 08 01/ 618 77 43 98



## Urdaibai

Urdaibaiko Biosfera Erreserban paisaia bikainak uzten dizkiguten garrantzia handiko hainbat elementu geologiko ditugu, eta hauek osatzen duten herrien historiaz hitz egiten digute.

**Oinez edo itsasontziz, animatuko zara horiek aurkitzera?**

Oka ibaiaren estuarioaren ezkeraldetik eskuineraino, Gernikatik igaroz, Euskal Herriko geodibertsitate bereizgarrienaz betetako barnealdea eta kostaldea dugu: **flysch-ak, diapiroak, dúnak, harrobiak, fosilak eta arroak.** Zeuk erabaki!

## Baso bainuak

Jarduera hau esperientzia zentzuzkoa da. Iraupen laburreko ibilaldiak lasaia egitean datza naturan murgilduta. Oraintxe bertan, aktibitate hauek **Arratzun, Gernikan eta Muruetan egiten ditugu.** Bisitan zehar, ingurune elementu naturalak behatzen dira; isiltasuna eta soinua naturalak gozatu ahal izango dituzu. Basoen eraginak eragin zuzena du pertsonen ongizatean. **Begiratu nahi al duzu?**



# EKOBIIDEAK

Kontaktua:

666 85 77 61  
688 62 72 42

[ekobideak@gmail.com](mailto:ekobideak@gmail.com)

[www.ekobideak.com](http://www.ekobideak.com)



Ekobideak Bizkaiko kooperatiba txikia da, Geoturismoan eta Ingurumen Hezkuntzan diharduena. Logo adituak gara ondare geologikoaren gidaritzan eta interpretazioan; Urdaibaiko biosfera erreserbak eta euskal kostaldeko geoparkeak ziurtatuta. Busturialdea-Urdaibaian baso bainuen helmuga turistikorak ziurtagiri gidak izateko prestatuta gaude ere.

Geoturismoa eta  
Ingurumen  
Hezkuntza...  
hitzak eta zeozer  
gehiago!



# Kortezubi



## BISITA MOTAK

**Norbanakoak:** Parkeko sarreran azken gertakizunen berri emango dizuegu [jaiotzak, espezie berriak...] Ibilbidean zehar, animalia bakoitzari buruzko panel informatiboak ditugu.

**Taldeak:** Aldez aurretik antolatutako bisitak dira egokienak [euskaraz eta gaztelaniaz]. Ibilbide osoan zehar, animalien inguruko ezaugarri guztiak azaltzen joango da gidaria. Hark zenbait animalia ukitzeko aukera ematen du.

**Ikasleak:** Naturari buruzko azalpenak ematen dira, taldearen adinari egokituta [haur zein nerabeak]. Animaliekin kontaktu zuzena edukitzea ahalbidetzen da. Bisitak goizekoak edo egun osokoak izan daitezke. Egun osokoa bada, arratsaldean landa praktikak egiten dira.

## ORDUTEGIAK

**Astelehenetik ostiralera:** 11:00etatik 15:00etara.

**Larunbatetan, igandeetan eta jaiegunetan:** 11:00etatik 18:00etara.

## PREZIOAK

**Norbanakoak:**

Helduak 10 euro eta umeak 6.

**Taldeak:** Bisita gidatuetarako erreserba egin behar da. Taldea 20 pertsona baino gehiagokoa bada, sarrera ordaindu eta gidaria dohainik izango da. 20 pertsonatik beherako taldeek, 35 euro ordaindu beharko dituzte gidaria eduki nahi izanez gero.



## Basondo, basafaunaren babesleku

**A**nimalia basatiek ere badute beraien etxea Euskal Herrian, eta Basondo da horietako bat. Zoologikoa izatetik urrun, bertako basafaunaren babeslekua da Basondo. Arrazoi desberdinak tarteko, bertan dauden animaliak ezin dira naturan askatasunean bizi, esaterako, oreinak, otsoak, katamotza, sai arrea eta putrea.

Animalia hauek zaindu eta sentsibilizazio lana egitea dute helburu, irabazi asmorik gabe. Animalia gehienak errekupeazio zentroetatik datozenak dira, eta gertutik ikusi eta kontaktu zuzena edukitzeko aukera dago kilometro bateko ibilbidean zehar, nahi izanez gero azalpenez lagunduta.

Faunaren aterpe izateaz gain, geologia eta botanika berezi batek inguruzten du Basondo. Euskal Herriko basoa ikusi daiteke bertan, arestiekin, adibidez. Parean, babestutako gunea dago: artadi kantauriarra. Kareharria da bertako lurra, eta horrek dolinak eta kobazuloak egotea errazten du. Horietako bat, kasu, Basondoko ibilbidearen barruan ikusi daiteke.



## BASONDO BABESLEKUA

Basondo auzoa, 6 - Kortezubi  
94-625 44 36  
info@basondo.com  
www.basondo.com

Sentrazioz betetako tokia

HOTEL  
gametxo



Gametxo Auzoa | Ibarangelu | 94 627 77 10

# Ogoñope

SURF IKASTAROAK

LAGAKO HONDARTZA




Aste bateko ikastaroa, bost egun ---> 100€

Egun bateko ikastaroa ---> 25€

ogonopesurfeskola@gmail.com

664579954



Mundaka - Laida - Sukarrieta FERRYA  
ERRESERBAK, ONLINE

# IZKIRA URDAIBAI

## TXANGO BEREZIAK:

- Geoturismoa Ingurumen Hezkuntza eta itsasadarra itsasbide geologikoa
- Mundaka-Elantxobe itsasbidea
- Urdaibaiko mareen arrastoaren itsasbidea
- Mundaka-Gaztelugatxe itsasbidea



[www.izkiraurdaibai.com](http://www.izkiraurdaibai.com) · 633 33 12 30



Andra Maria kalea, z/g  
Gernika-Lumo (Bizkaia)  
94-625 19 30

[www.euskalsouvenirs.com](http://www.euskalsouvenirs.com)

# EUSKAL SOUVENIRS

*Euskal Herriko produktuak, oroigarriak eta opariak.  
Gure lurraldearekin inoiz ahaztu ez zaitezten!*



@euskalsouvenirs

Hau ez da  
ikusteko leku bat



# urdaibai

basque reserve

Bueltatuko zara



Eskaneatu QR Kodea kanpaina berriko bideoa ikusteko

Hau sentitzeko eta  
bizitzeko lekua da



# Busturia

## Busturipunta



Mikel Retolaza Etxebarria



**Mikel  
Retolaza Etxebarria**  
[Bertsolaria]

**«Zoratu egiten gara  
urrunera joateko,  
eta hurbil dauzkagu  
bake leku ederrak»**

**A**skotan zoratu egiten gara urrunera joateko, eta hurbil dauzkagu bake leku ederrak». Horixe pentsatzen du Mikel Retolaza Etxebarria busturiarrak. Axpe auzokoa da, eta bertatik bertara dauzka toki kuttunak: baten orde, bi.

Busturiak bost auzo dauzka. Euretako bat da Axpe, eta hangoak dira bere bi toki kuttunak: bata San Antonioko hondartzara bidean dagoen begiralekua, kanalera jotzen, bertakoek *Txakurren kanposantue* deitzen dutena; eta bestea, Busturipunta, moila zaharra zegoen lekuan, auzoko trenbidea pa-

satuta. «Nahiz batera nahiz bestera joaten naiz; batez ere Busturipuntara. Esango nuke leku erabat pribilegiatua dela, biosferaren erdi-erdian ipintzen zaituena», adierazi du Retolazak.

### **Burua bertsoz beteta daukanerako**

Bertso eskolako kide, txapelketa sasoiaren bertan aurkitzen du babeslekua. «Burua lehertu beharrean joaten naiz deskonexio bila, bertsoz gainezka daukadala; ideian, doinuan edo azken puntuan pentsa eta pentsa nabilen garaian. Batzuetan denbora gutxirako noa; beste batzuetan, askorako; baina gauza bat ziurra da: beti arnasa aurkitzen dut bertan», esan du.

Gaur egun, bidea hesi batekin atonduta dago. «Nire gomendioa da egun argiz joatea, ibilaldi atsegina delako Busturipuntatik hasi eta San Antonioko hondartzarainokoa, itsaslabarretik, ia-ia ur gainetik. Biosfera ikusten duzu, bere kolore guztiekin, eta zoragarria da!».



**BUSTURIKO  
UDALA**

Axpe auzoa, 1  
**94-687 00 50**  
Faxa: 94-687 00 63  
alkatea@busturia.eus  
[www.busturia.eus](http://www.busturia.eus)

Regulador  
Bizkaiko Txakolina  
Denominación  
de Origen

# AMUNATEGI TXAKOLINA

1812 urteaz geroztik

17.000 metro  
karratutako  
mahastia  
Busturiko  
San Bartolome  
auzoan.



**JAUN ZURIA TXAKOLINA:**  
Kondairadun txakolina.  
Hori lastoa, erreflexu berdexkak  
dituena. Bizia sudurean, konplexua,  
lore- eta fruta-notekin.  
Azidotasun orekatua eta  
amaiera atsegina.



• **Zuzeneko salmenta:**  
3 eta 6 botilako kutxetan.

**DASTAKETA, SALMENTA  
ETA BISITA GIDATUAK.**

Kontaktua: **685 73 73 98** (Anton)  
anton.aranburu@gmail.com



*Txakolinaren magia*

[bodegasitsasmendi.com](http://bodegasitsasmendi.com)  
[artizarenoturismo.com](http://artizarenoturismo.com)

**ITSAS MENDI**



**urdaibai**  
Turismo aktiboa eta abentura



**urlekeiño**  
Turismo aktiboa eta abentura



**ABENTURAZ ETA NATURAZ GOZATZEKO 11 AUKERA**



**IKASTETXE TALDEENTZAT EGITARAU BEREZIAK**



**Ur Urdaibai**

Arketa auzoa, z/g (48311 IBARRANGELU)

**946 276 661 / 688 635 190**

[www.urdaibai.com](http://www.urdaibai.com) / [info@urdaibai.com](mailto:info@urdaibai.com)

**Ur Lekeitio**

Ezpeleta, 12 (48280 LEKEITIO)

**946 243 586**

[www.urlekeitio.com](http://www.urlekeitio.com) / [info@urlekeitio.com](mailto:info@urlekeitio.com)